


- **Zaldibian** etxeetan sortzen diren hondakinak **sailkatuta** eta **atez ate** biltzen dira.
- Etxebizitza bakoitzak identifikatutako **ONTZI-SORTA** bat du papera eta kartoia, organikoa, ontzi arinak eta errefusa ateratzeko. **Udaletxean eskura daitezke doan.**

**Iluntzeko 20:00etatik goizeko 6:00ak** bitartean atera behar dira.  
**Hurrengo egunean jaso** behar dira eta etxera eraman.

| IGANDEA                                                                           | ASTELEHENA                                                                        | ASTEARTEA                                                                         | ASTEAZKENA                                                                         | OSTEGUNA                                                                            |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|
|  |  |  |  |  |
| ontzi arinak                                                                      | organikoa                                                                         | papera eta kartoia                                                                | ontzi arinak / errefusa                                                            | organikoa                                                                           |

Hondakinak dagokion **ontzi barruan** atera behar dira.  
**Poltsatan ez dira atera behar**, pixoihalak izan ezik.

- **PIXOIHALAK** plastikozko poltsa itxi batean sartuta atera daitezke eta ontziarekin batera zintzilikatu, **igandetik ostegunera**.



- **ORGANIKOA:** Hondakin organikoarentzat **bi ontzi marroi** jasoko dituzu: sukalderako, 10 litroko ontzi txiki aireztatua, eta kalera ateratzeko, 20 litroko kubo itxia.

Hondakin organikoak poltsarik gabe atera daitezke, paper zorroetan edo **"OK konpost"** ziurtagiria duten **poltsa konpostagarrietan**.



- **Nola lortu POLTSA KONPOSTAGARRIAK:**


Mediku etxeko sarreran poltsa konpostagarriak ematen dituen **makina** dago.

Sasieta Mankomunitateko **txartela** erabiliz, **10 astean behin** poltsa sorta bat doan eskura daiteke.



# Hondakinik onena sortzen ez dena!

- Beste zenbait hondakin edukiontzien bidez biltzen dira:



Beira



Sukaldean erabilitako olioak



Arropa



Pilak



Kafe kapsulak



- Etxeko trasteak (altzariak, koltxoak, somierrak, etxetresna elektrikoak...) hileko 1. eta 3. ASTELEHEN GAUEAN atera behar dira. Utzi beira edukiontzien ondoan.

- MINIGARBIGUNEA hondakin txikientzat:

Aparatu elektriko eta elektronikoak, informatika eta telekomunikazio gailuak, metala edo plastikoa ez diren ontziak, tinta eta toner kartutxoak, erradiografiak, bonbilak eta fluoreszenteak. **Sartzen ez dena garbigunera eraman. Ez utzi hondakinik lurrean!**



- OBRAKO HONDAKINAK, paletak, txatarra, pneumatikoak, etab.

**ez dira jasotzen** eta **GARBIGUNERA** eraman behar dira. Ordizian dago, suhitzailen ondoan.



## ORDIZIA


Astelehenetik ostiralera

**9:00-13:00**

**15:30-18:00**

Larunbatean

**9:00-13:00**



- Baserrian hildako edo ehizatutako **animalien erraiak, larruak eta hondakinak** Ordiziako garbigunera eraman daitezke doan ere.



## INFORMAZIO GEHIAGO

[www.sasieta.eus](http://www.sasieta.eus)



Zalantzaren bat baduzu, bi gidak kontsulta ditzakezu:

- Horian, zer sar daiteke?**
- Birziklatzea erraza da!**  
Hondakinak zuzen bereizteko gida



العربية



Română



English



Français

**SASIETA MANKOMUNITATEA:** Tel. 943 16 15 55 • [info@sasieta.eus](mailto:info@sasieta.eus)

**ZALDIBIAKO UDALA:** Tel. 943 88 03 57 • [bulegoa@zaldibia.eus](mailto:bulegoa@zaldibia.eus)



**SASIETA**

MANKOMUNITATEA

[www.sasieta.eus](http://www.sasieta.eus)